

AINTZINSOLASA

Gure haurtzarora historia handien artean iragan zuen; batetik, kausaltasun-historien artean —horiek egiturazko faktore batetik edo batzuetatik azaltzen ziren, guztia baldintzapean jartzeko gaitasuna izanik— eta, bestetik; kasualitate-historiak —horiek, aldiz, aparteko gertaera bat edo orotarik egiteko gai den izate magiko/erlijiosoa salbuespenez ematetik azaltzen zirenak—.

Bestalde, horiek aldarrikatutakoaren aurka, historia hauek kausazkoa eta ezustekoa bat egiten zuten, betiere asmoak ahalbidetzen duten trebetasunarekin bakarrik; ondorioz, gerra-ekintzak ereduzko bitzekin eta santuen bitzekin elkartzera eramaten zuten lehenengo irakurketa batzuk egiten ziren. Guk bereganatu beharreko irakaskuntzen gune erkidea zoritxarraren kontzeptuan barnera genezake: alde batetik, kausa on bat besarkatzeak aparteko bizona bermatzen zuen, eta, beste alde batetik, aparteko izateek kausa onak bermatzen zituzten. Zoritxarrekoa okerreko kausa edo liderra hautatzen zuena!

Behin gaztaro samurrena iritsita, hain maite izan dugun formatu etzana eta ikasitako moldea bertan behera utzi dugu. Horrela, benazko liburuak hartuko ditugu, ohiz kanpoko azkartasunarekin ulertuko ditugunak, ezagunak egiten zitzaizkigun kontzeptuekin adieraztearen ondorioz. Ezari-ezarian, patuei kateatutako subjektu kolektiboak ezagutzen joan ginen, horiek betepenera gidatzeko gai ziren abangoardiak edo horien bertsio bigunenetan bultzatzeko gai zirenak, gizartearen jardunbiderako egiturak, eta prozesu objektiboak.

Zorionez, pentsamendu kritikoarentzat garai ilunenetan bada ere, noiz-behinka borondatezko akzioa eta gizabanakoen elkarreragina eguneroko bizipenetan protagonismoa har zezaten eragiten zuen. Historia bitalista horietan, zoritxarrak atzera egiten zuen intentzionalitatearen mesederako, edo beste hitz batzuetan, errepikapen-akzioak sormen-akzioaren mesederako. Bide horretatik ezagutu ahal izan dugu pertsonen biografia taldeen eta egitatei buruzko korronteen artean iragaten dela; hortaz, elkarrekin komunikatzen dira gizabanakoek euren buruak eraldatuz, bai eta ingurua ere.

WORKALÓ pentsamendu kritikoa eta komunikazio-ikerketara bereizten dituen ezagueraren eta akzioaren laburpenean inskribatzen da. Ezaguera sortzea gizarte-ikerketaren zalantzarik gabeko helburua bada, sortutako ezagueraren era-

bilera eta banaketa demokratikoa, aldi berean, komunikazio-ikerketaren helburua eta aurrekontua ere izango da; horrek gizarte-kohesioa bilatzen du gizartean dauden baztertze-forma guztiak, horiek errepikatze mekanismoak eta berori ezabatze proposamenen gaineko adostasuna bilatzearen bidez, bai eta gizarte-egoera ahuleko taldeek ekartzen duten gizarte-ezagutza positiboaren nahiz eraldatzailearen indartze- eta hedatze-publikoa ere.

Jatorrian, «WORKALÓ. The creation of new occupational patterns for cultural minorities: The Gypsy Case», Europako Batzordearen V. Programa Markoari buruzko RTD ikerketa-proiektua da. Ikerketa Bartzelonako Unibertsitatean dagoen Desberdintasunak Gainditzeko Teorien eta Praktiken Ikerketa Zentroak (CREA) koordinatuko du, 2001 eta 2004. urteen artean garatutakoa. Ikerketa horrek Surrey eta West of Timisoara Unibertsitateetako ikertzaileen parte-hartzea nahiz lankidetzak izan du, bai eta Lisboako Gizarte Zerbitzuaren Gorengo Institutuarena zein CADISena ere, Parisko Centre d'Analyse et d'Intervention Sociologiques.

WORKALÓren ekarpen nagusia bizitako ezaguera eta horrek eraldatu nahi duen gizarte-akzioa bat egitean datza. Horretarako, ijitoei euren bizitzako dramaren eta bizitzeko duten gogoaren inguruan egunean-egunean adierazteko aukera ematen die, eta, aldi berean, desberdintasun-egoerak gainditzeko gogo bera duten agenteen artean jakiteko transakzioa errazten duten elkarte eta lankidetzarako modu berriak sustatzen ditu. Komunikatu eta eraldatzeko elkartzea, gu lekualdatzeko soziologia-proposamena soila, argia eta irmoa izateagatik.

Ikerketak lan-merkatuaren gaiari aurre egiten dio Ijitoen Komunitateko kideek dituzten trebetasunen eta Ezagueraren Gizarteko lan-betekizunen artean loturak bilatuz. Agente ezberdinak —akademikoak eta akademikoak ez direnak, ijitoak eta ijitoak ez direnak—, guztiak batera elkarrizketarako gaitasunen inguruan hausnarketa egitean, taldeko adostasunak eta lanak, edota, gaur egungo gizartean enpleguaren izaera malgu eta migraziozkoarentzat nahitaezkoak diren trebetasunek bat egiten dute horiek Ijitoen Komunitatean modu esanguratsuan garatuta daudela adieraztean; ondorenez, lanean sartzeko eta gizarte barruan sustatzeko aukerak ematen die, betiere arriskuan jarri gabe —hutsune-egoerara bideratzeagatik— euren nortasunaren jarraipena.

Beste ondorio garrantzitsuetako bat herriaren motor gisa dugun emakumezko ijitoaren gain du eragina. Gero eta gehiago jabetuz hezkuntzak duen garrantzia, emakumezko ijitoek seme-alabak irakaskuntzan barneratzera bultzatzeaz gain, emakumezko ijito gazteak beraien komunitaterako ereduizkoak diren prestakuntza-kotak lortzen dihardute. Emakumezko ijitoak elkartzen hasi dira; horrela, lanbide duina eskuratzeko adina prestakuntza lortzeko gai izango dira, nortasuna, kultura eta izatea iraunarazteko ahaleginak eginez lagunartean izateak ematen dien indarraren ondorioz.

Ijitoen Komunitateari buruzko zein komunitate horretarako galdera interesgarrien inguruan LAN HARREMANAK deritzon monografiko honek ematen digu informazioa. Ikerketan parte hartzeko CREAren gonbidapena jasotzea oparibat izan zen; lan honen emaitzak aldizkari honetan aurkezteko aukera izatea atsegin handikoa izan da.

MIKEL ARRIAGA ETA ANDRÉS DAVILA

Euskal Herriko Unibertsitateko
Soziologia II Saileko Irakasleak